

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko otsailak 3 · 1257 zenbakia



EIBARTARRA DA MISS GRAND EUSKADI

MERKEALDIA

2MÓ 199€

BETAURREKO PROGRESIBO
(LEHEN 229€)

+

UKIPEN LENTEAK OPARI



RES. 0108

Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com 



ABESTIA eta taldearen
FITXA entregatzeko
azken eguna:
OTSAILAK 10



**ANIMATU
ETA
PARTE HARTU!**

zarelakopara

Izen-abizenak _____ Helbidea _____
Tfnoa / emaila _____ NAN _____
Jaiotze data _____ K/K zenbakia _____

eta kitto!
eusgara elkarte

Urkizu 11
943 20 09 18 - 943 20 67 76
elkarte@etakitto.eus

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatuek	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

Jarraitu gaitzazu!



Bihar, Santa Ageda bezperan, koplak kantatzeko kalejirak egiteko ohitura dago eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak aurtun gonbidapen irekia egin du, eibartar guztientzat. Martitzenean egin zuten entsegua Musika Eskolakoek, Kaleetan Kantuz-eko hainbat lagunekin batera. Kalejira zapatuan izango da, 19:30ean udaletxean hasita, eta Urkizuraino joango dira.

“Eibar Kirolaren Europar Hiria 2023” izendapena dela eta, herriko kirol-eragileek Udalaren aitortza jaso zuten martitzen arratsaldean, Portaleko areto nagusian. Kirol modalitate ezberdinetako talde eta klubek ez ezik, herrian dauden gimnasioek, ikastetxeek, kirolari laguntzen dioten enpresek eta dantza akadamiak ere jaso zuten diplomaren kopia bana.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Alaves-Eibar derbiaren inguruko gonbidapena

Zapatu honetan Gasteizen jokatuko den Deportivo Alaves eta Eibar FT-ren arteko derbia dela-eta, "Eibar-Gasteiz" elkarteak, ohikoari jarraituz, Anaitasun Bazkaria egingo du bi taldeetako zaletuak bilduz ekitaldi horretan. Toloño tabernan dugun gure egoitzatik abiatuta eguerdian egingo dugun kalejiraren ondoren, hiriburuko erdigunean dagoen Zabaldegia elkartearen bilduko gara mahai baten bueltan, Gloriosoaren enbaxadore diren Javier Cameno eta Asun Gorosperen presentziarekin.

14:30ean familia-argazkia aterako dugu Ama Zuriaren plazan dagoen "Vitoria-Gasteiz" eskultura begetalaren ondoan. Talde baten zein bestearen koloreekin bertan agertzea nahi duena gonbidatuta dago. Aupa Eibar!

"Eibar-Gasteiz" Elkartea

Astean esanak



Kapelak egiteko orain ardia, ahuntza, erbia eta untxia erabiltzen dira bakarrik: ilea moztu eta feltroa egiten dugu, ez da larrurik erabiltzen. Lehen gauzak betirako fabrikatzen ziren eta asko aurrezten zen erosteko: ezkontzako zapatak, trajea eta kapela luzea bizitza osoan erabiltzen ziren, eta norbera ere jantzi horiekin hobiratzen zuten. Orain kapelen kalitateak ezartzen du desberdintasuna, materialak; lehen egiteko prozesuak baldintzatzen zuen kategoria. Esaten zen Italian egindakoak zirela onenak; orain kapelak makina berak egiten ditu Italian, Txinan, AEBetan, edonon izanda ere.

EMILIO PIRLA, Bilboko kapela dendakoa

Klase partikularrak behar-beharrezkoak balira bezala hartzen dira gaur egun. Eta lau eurotik bakarra gastatzen da errefortzu klaseak jasotzeko, beste hirurak besteengana-tiko nabarmentzeko da. Horrek adierazten du, aldi berean, euskal hezkuntza sistemak ondo betetzen duela bere lana. Diru gehien duten familiak bidaltzen dituzte euren seme-alabak partikularretara, ondo joanda ere gehiago destakatzeko. Aurreko belaunaldi eta erdian luxuztat hartzen zena orain beharrezkotzat jotzen da, eta bada jendea benetan behar dutenetik dirua kentzen duena seme-alabei klase horiek eskaintzeko.

JUAN MANUEL MORENO, UNED-eko katedratikoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDO EGON EZ → Txarto sentidu. "Ondo ezbazagoz, juan zaittez etxera". Oker egon. "Zuk esan dozun gauzan ez zagoz ondo; egixa beste modu batera da".

1956

San Blas opilak bedeinkatzen

Eibartarren artean oso errotuta dago San Blas egunean opilak elizan bedeinkatzeko ohitura. Tradizioaren arabera, egun horretan bedeinkatutako sokak paparrean eramanez gero, eztarriko gaitzik ez da izaten.

PLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 3
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ZAPATUA 4
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
DOMEKA 5
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 6
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
MARTITZENA 7
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 8
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUENA 9
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
BARIXAKUA 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxeberria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepedeak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jose Prieto Freile**. 98 urte. 2023-01-25.
- **Juan Maria Zendoia Astarloa**. 80 urte. 2023-01-30.
- **Mauricio Lorenzo de la Torre**. 93 urte. 2023-01-30.
- **Asuncion Urkiola Bedialauneta**. 85 urte. 2023-01-30.

Jaiotakoak

- **Arya Sanchez Mora**. 2023-01-14.
- **Mateo Rueda Carrasco**. 2023-01-14.
- **Riyad Aoulad Si Kaddour**. 2023-01-17.
- **Danel Bordas Pavon**. 2023-01-23.
- **Paule Larrañaga Arizaga**. 2023-01-27.



EAJ-k 36 proposamen aurkeztu dizkio Udal Gobernuaren aurrekontu zirriborroari

EAJ-PNV alderdiak aurreko astean prentsaurrekoan jakitera eman zuzenez, 36 proposamen aurkeztu dizkio Udal Gobernuaren aurrekontu zirriborroari, izaera ekonomikorik gabeko lau zuzenketa eta gastua gutxitzeko 31 proposamen egiteaz gain. Jeltzaleen proposamen gehienak aurreko legealdietan adostu eta egin gabe geratu diren proiektuak gauzatzera bideratuta daude eta PSE-rekin, EH Bildurekin eta Elkarrekin Podemosekin akordioetara heltzeko prestutasuna aurkeztu dute.

Azken urteotan lortutako akordioak behingoz martxan jartzea eskatu du talde jeltzaleak: “Adibidez, Jardinetako aparkaleku perimetrala egitea, komun publikoak jartzea hiriko hainbat gunetan (San Juan, anbulatorioko gunea, Meko-la, Txaltxa Zelai, Txomo, Barrena eta bidegorria Azitainen), eta modu subsidiarioan jardutea egoera txarrean dauden eraikinak botatzeko, adibidez Arraguetan, Ubitxan edo Otaolan”.

Horrez gain, “hiri-bueltan 100 zuhaitz landatzea, Altzubarrengo

frontoia konpontzea, adinekoentzako tutoretzapeko etxebizitzak martxan jartzea edo Makaskua kalea txukuntzea” ere “aspaldiko erabakiak” direla eta, betetzeko eskatzen dute. Nabarmendu dituzten beste gai batzuk landa-auzoetako garraio publikoa, baserrietan putzu septikoak jartzeko azterketa, Toribio Etxebarria eta Calbeton kaleen arteko irisgarritasuna hobetzeko ideien lehiaketa, eta Calbetonetik Bista Ederrerraino irisgarritasun unibertuala bermatzeko azterlana lirabeteke. Eta, aipatutakoekin batera, 2015ean idatzitako Plan Estrategikoa abian jartzeko eskatu dute zuzenketa batean.

Aurten Udal Hauteskundeak egingo direnez, EAJ-rentzat garrantzitsua da aurrekontu adostuak lortzea. Era berean, herriak aurrera begirako kudeaketa dinamikoagoa behar duela aipatu du Josu Mendicutte alderdi jeltzaleko bozeramaileak. Bere ustez, egiteke dauden proiektuak gauzatu behar dira eta, hortik abiatuta, Eibar bizitzeko toki aproposa egin eta “lanaren sinonimo bihurtu”.

Eibarko Gaztetxea berriz zabaltzeko auzolanean laguntzeko eskatu dute

Paretak berritzeko, kableatu berria jartzeko, hainbat gauza mugitzeko eta beste ekintza batzuk egiteko laguntza behar dute gaztetxean eta, hori dela eta, auzolanean laguntzeko deia egin dute. Otsailaren 11n egingo dituzte lanak, 11:00etatik 14:00etara. Orain dela hilabete batzuk lapurrak sartu ziren Gaztetxean eta, besteak beste, argi barik laga zuten eraikina. Hori dela eta, Gaztetxea berriz martxan ipini ahal izateko laguntza behar dute.



Hondakinak birziklatzeko prototipoa diseinatu dute Teknikerren

Gure herriko zentro teknologikoak diseinatutako prototipoak aukera eskaintzen die fabrikatzaile aeronautikoei euren produkzio prozesuetan sortutako hondakinek balio handiagoa hartu eta birziklatzeko, modu horretan beste sektore batzuetan erabiltzeko. Oscar Gonzalo Teknikerreko Sektore Aeronautikoko arduradunak dioenez, Europar Batasuneko industria aeronautikoaren produkzioan “gero erabili ezin daitezkeen 10 toneladatik gora hondakin sortzen ditu urtero, batez ere erretxinarekin aurrez blaitutako karbonozko fibra duen materialetan”.



Eibartarren iritziak jasoko dituzte sozialistek hauteskundeetarako

Jon Iraola maiatzeko Udal Hauteskundeetarako PSE-ko hautagaiak aurreko astean jakinarazi zuenez, alderdi sozialistak gutun bat igorriko die eibartarrei bere asmoen berri emateko eta herritarren kezak eta zalantzak jasotzeko asmoz. Horretarako, komunikaziorako hiru bide irekiko ditu PSE-k: 943 20 17 68 telefonora deitzea, eibar@socialistaseibarreses.com posta elektronikora idaztea edo alderdiaren egoitzara (Isasi, 2-2.) posta arrunta bidaltzea.



Debabarrena Integra-Bat Eginez programarekin euskaraz ikasten

Debabarrena Integra – Bat Eginez egitasmoaren 17. edizioa da aurtengoa, eta euskara bigarren aldiz landu da lanerako oinarrizko formakuntza eskaintzen duen programa horretan. “Uler-saioak” urrian hasi eta urtarrilaren 27an amaitu ziren, bertan parte hartu duten ikasleei diplomak emateko ekitaldiarekin. Diplomak Jon Iraola Eibarko alkateak eta Carlos Abad Armeria Eskolako Ikasle Ohien elkartearen presidentek banatu zituzten, eta ekitaldian zehar euskarara

gerturatu eta pixka bat ikastearen garrantzia azpimarratu zuten. “Uler-saioak” 60 orduko moduluaren helburua euskarazko ahozko ulermenean oinarrizko maila lortzea da, eta modu horretan integrazio laborala eta soziala erraztea.

Euskara saioak Eibarko AEK eskualtegiako irakasleek eman dituzte. Eibarko Udalaren eta Armeria Eskolako Ikasle Ohien elkartearen arteko lankidetzari esker gauzatu den proiektua da, Klusterrak eta EHU-k landutakoa.



Ekialdean egingo diren esku-hartze guztiak jasoko dituen maketaren alde

Ekialdea Bai elkarteak egindako eskaera aintzat hartu eta, pasealeku berriaz gain, ekialde guztian egingo diren esku-hartze guztiak jasoko dituen maketa egitea proposatu du EH Bilduk. Ados dago EH Bildu Ekialdea Bai elkarteak Estaziño-Azitain pasealekuaren maketa egiteko eskaerarekin, “baina ekialdeko zonalde horretan egingo den esku-hartzea askoz zabalagoa da eta maketan esku-hartze

guztiak jasotzea proposatu dugu”, esan dute EH Bildutik. Azaldu dutenez, “inbertsio historikoa bideratuko da ekialdera PSE eta EH Bilduk bultzatuta eta herritarrek plangintza guztia maketan jasota ikustea merezi dute”. EH Bilduren ustez, Eibarko ekialdeko esku-hartzea integrala da eta horrela jasota egon beharko litzateke, maketan Barrena, Azitain eta Murrategi ere kontuan hartuta.



Txakurren txiza garbitzeko botilatxoak banatuko dituzte doan dendariak

Udaleko Ingurumen Sailak, Eibarko Dendarien Elkartearekin batera, gune publikoetan txakurren txiza garbitzeko kontzientziazio eta sentsibilizazio kanpaina abiatuko du astelehenean. “Hobe arrastorik gabe” izenburuko ekimenaren baitan, astelehenetik aurrera plastikozko botila txiki tolesgarri eta berrerabilgarriak jarriko dira eskuragarri, txakurren jabeek urez eta ozpin pixka batez bete dezaten, txakurraren pixetara botatzeko. Guztira 3.000 botila

banatuko dituzte, eta doan lortu ahalko dira Dendarien Elkartearen establezimenduetan.

Horrela, herriko kaleak garbiago egotea lortu nahi dute eta ekimena Dendarien Elkartearen eskutik ipiniko da martxan. Izan ere, merkatariak beraien establezimendu inguruko txizak garbitu behar izaten dituzte, bai fatxadetan bai erakusleihoetan. Bide batez, Eibarko merkatariak hirriaren zaintzan inplikatzeari sus-tatu nahi da.

Igogailuetarako eta fatxadak konpontzeko dirulaguntza deialdi berria egin du Udalak

Udalak martxan jarri du bizilagunen komunitateak pegoren irisgarritasuna hobetzeko dirulaguntzen planaz baliatzeko deialdia. Planean aurreikusten da igogailuak, plataformak, eskailerak, arrapalak eta gainerako elementu mekanikoak eta eraikuntza-koak instalatzea, bide publikoaren eta bizitegi-eraikinetako atarien

arteko desnibelak gainditzeko. Horretarako, Udalak 50.000 euroko diru-partida bat prestatu du, eta dirulaguntza horiek jasotzeko baldintzak eta eskakizunak jakinarazi ditu. Dirulaguntza horiek eskatzeko epea eguaztenean hasi zen eta azaroaren 15ean amaituko da. Informazio gehiago Udalaren webgunean daukazu.



San Blas opilen errezeta pausoz pauso grabatu dugu bideoan

Arrate Kultur Elkartearen eskutik San Blas opilak egiteko ikastaroa egin zen zapatuan, elkartearen lokalean. Edurne Zenarruzabeitiak jardun zuen irakasle lanetan eta, ikastaroan parte hartu ez zutenentzat, opilak nola egiten diren pausoz pauso ederto azaldu digu gure YouTube kanalean ikus dezakezen bideoan.

Bideoa ikusgai gure YouTube kanalean



Klima eta Energia Jasangarrirako Plana

Udalak Eibarko Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana 2022-2030 dokumentua onartu zuen asteleheneko osoko bilkuran. Plan horretan, hainbat neurri ezartzen dira berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta klimaldaketaren ondorioak arintzeko. Planak bere gain hartzen ditu udalerriko berotegi-efektuko gasen emisioen oinarriko inbentarioa eta horiek arintzeko diagnostikoa, arriskuen eta kalteberatasun klimatikoen ebaluazioa eta, 9 ildo estrategikotan banatuta, 111 arintze eta egokitze-neurri jasotzen ditu.



Mekolako lehen igogailuaren lanak laster hasiko dira eta 40 astetan amaituko dituzte

Udaleko Kontratazio Mahaiak martitzenean egindako bileran Mekola inguruan proiektatutako bi igogailuetako lehenaren eraikuntza Altuna y Uría SA enpresari adjudikatzea proposatu zuen, 1.642.547 eurotan, lanak egiteko 40 asteko epea ezarriz. Udaletik azaldu dutenez, “lizitaziora aurkeztutako hiru eskaintzak aztertu ondoren, Altuna y Uriari dagokiona aukeratzea proposatu zen. Adjudikazioa behin betikoa izango da enpresak eskatu-

tako dokumentazioa entregatzen duenean. Une horretatik aurrera formalizatuko da kontratua, eta horren ostean hasiko dira lanak”. Lehen igogailu hau Berdintasun Pasealekutik abiatu (udaletxe ostean dagoen trenbidearen gaineko pasealekua) eta Mekola kaleraino iritsiko da.

Obraren barruan sartzten da igogailuaren oinarria kokatuko den lurra hondatzea eta prestatzea, Bidosolaneko txaleta zegoen orubean.

Errebal Plazaren inguruko lorategietan landare gehiago jartzen ari dira

Aurreko astean hasi ziren Errebal Plazia eraikinen inguruko lorategiak txukuntzeko lanak. Bestek beste, hiru espezie ezberdinetako 32 zuhaitz txiki landatuko dira eta, horrekin batera, tamaina handiko hiru lorontzi gehiago eta Litxurako 20 bat jardinera, (lorontziak baino txikiagoak) ere jarriko dituzte.



HAPO-ren berrikuntzak idazteko irizpide nagusiak onartu dituzte

Udaleko Gobernu Batzordeak Eibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) berrikuntza idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartu zituen urtarrilaren 9an egindako bileran. Dokumentuan azaltzen denez, honakoak dira irizpide eta helburu orokorrak: lurraldea babestea eta hobetzea; planifikatutako aztarnan esku-hartzea; kultura-ondareari garrantzia ematea; hiri jasangarria eta aldaketa klimatikora egokitua; lurraldearen oreka ekonomikoa; hiri atsegina eta erakargarriago bat; eta antolamendurako tresna berri eta eguneratu bat.

Langabezia-tasak behera egin du Eibarren

Urtarrileko datuen arabera, 1.449 lagun daude langabezian Eibarren eta langabezia-tasa %11,41ekoa da. Horrela, langabeziak behera egin du azken hilabeteen herrian (aurreko hilabetean 1.470 langabetu zeuden eta langabezia-tasa %11,58koa zen). Eskualdeko herri guztiak hartuta, langabezia-tasa %9,96koa da. Debak jarraitzen du langabezia-tasarik baxuena izaten (%6,36), eta Soraluze altuena (%12,92). Eibar eta Soraluze izan ezik, gainontzeko herri guztietan langabezia-tasa %10etik beherakoa da.



Baserrietan eta kalean arituko dira bihar santaeskean

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, koplak kantatzeko ohitura handia dago Euskal Herriko toki askotan, eta Eibarren ere horri eutsi nahi diote Juan Bautista Gisasola Udal Musika Eskolakoek. Hori dela eta, biharko ekitaldi bikoitza prestatu dute: arratsaldeko lehen orduan Arraten hasiko dira koplak kantatzen, Orbetik behera Urkizuraino ailegatzeko. Eta, lehen kalejira hori amaitu eta, ia jarraian, bigarren kalejirari ekingo diote, Untzagatik Urkizura kantuan jarraitzeko.

Bideoa ikusgai gure YouTube kanalean



Aurten Santa Ageda bezpera zapatuan egokitu dela aprobetxatuta, horren aitzakiarekin ekitaldi berezia prestatu dute Udal Musika Eskolako irakasleek. Iraide Ansorena zuzendariak azaldu digunez, “Arratera autobusez igoko gara 15:30ean, eskolako haurrekin, eta Musika Eskolako trikitilariarekin batera kalejira egingo dugu, Urkizuraino. Bidean hainbat tokitan geratzen joango gara, koplak kantatzeko. Arraten bertan, hiru tokitan arituko gara kantuan: santutegian, tiro-pitxonen eta Kantabrian. Ondoren, Orbetik behera joango gara eta, baserrietako batean, merienda jateko geratu egingo gara, txokolate beroa eta sanblasa. Ondoren, kalejirarekin jarraituko dugu: Azitaingo industrialderaino jaitsi, Altzubarreneko frontoira gero, eta Barrenatik gora Karmen kale-raino. Han, Karmengo Amaren eliza parean kantatuko dugu eta Urkizun amaituko dugu, 19:00ak aldera”.

Ego Ibarra batzordeak jasota duenez, “antzina gazteak edo ‘kinttuak’ izaten ziren baserriz baserri eskean joaten zirenak, afariren bat egiteko dirua batzen. Makilak lurrean kolpatuz, koplak erritmoa gordeta aritzen ziren kantuan, eta letrek, normalean, herriko kontuak edo halako etxeko zeraren borondatea edo beste haren zekentasuna izaten zuten hizpide”.

Eta Juan San Martinen arabera, “Eibarren bertan ere ohitura zaharrek ditugu Santa Ageda kantak, herrian taldeak kalez-kale ezagutu ditugu Santa Ageda bezpera gauean, otsailaren 4an. Baserritarren artean lehenagotik ezagutzen da. Eta Eibarren, Aginaga auzoko San Roman ermita dugu ohitura horren agiririk zaharrenak ematen dizkiguna. San Roman XVI. mendeko Santa Ageda irudi eder bat gordetzen da eta, bailaratik aparte, Eibar, Barinaga eta Markina-Etxebarriako baserritarrek debozio

handia diote. Gainera, haurdun dauden emakumeak otoitz egitera joaten zaizkio eta kandelak piztutzero”.

Tradizioak dioenez, “Santa Ageda Siziliako familia ospetsu batean jaiotako gaztea izan zen, hain polita Erromako senatore batek berataz gozatu nahi izan zuela. Berak, kristaua izanda, ez zuen onartu eta azken honek, mendekuz, torturatzeko eta bularrak mozteko agindu zuen. Irudipen batean San Pedro ikusi zuen, eta honek zauriak sendatu zizkion”.

Santu horri laguntza eskatzen zaio sutetik, tximistetik eta sumendietatik etor daitezkeen kalteen aurrean. Berarengana jotzen da bularretako gaitzen, erditze zailen eta edoskitze arazoaren kasuetan ere. Erizainen zaindaria ere bada.

Kalejiran parte hartzeko gonbidapena

Santa Ageda bezperako bigarren kalejira Untzagatik, udaletxe paretik, abiatuko da, 19:30ean, eta horretan parte hartzeko gonbidapen zabala egin nahi izan dute. Musika Eskolako zuzendariaren berbetan, “pandemiak min handia egin die kantuan aritzen ziren talde askori, baita horrelako kalejirei ere. Horregatik egin dugu deialdi zabala, guk egin behar dugun kalejirara batu daitezten. Azken batean, gu Udalaren eskola izanik, jendea errazago animatuko zela pentsatu genuen. Eta, gure gonbidapenari erantzunez, Kaleetan Kantuz taldeko 20 bat lagun batu zaizkigu. Beraz, beraiekin batera, Musika Eskolako ikasle heldu batzuk, irakasleak eta Sostoa abesbatza ibiliko gara kantuan, Marisol Arrillaga soinu irakaslearen eta bere ikasleen musikarekin lagunduta. Herriko kaleetan zehar ibiliko gara kantatzen, Urkizun 21:00ak aldera amaitzeko”. Asmoa kalejira bakar eta jendetsua osatzea da.

Ohiturak agintzen duen bezala, Santa Agedari eskainitako koplak abestuko dituzte, hiru bertsiotan: santuaren bizitzari buruzko koplak ezagunak, santaeske gehienetan kantatzen direnak; bertsolarien batek boteprontoan botatzen dituen koplei erantzuteko erabili ohi den koplak; eta horren ezaguna ez den hirugarren bertsiotatik, Sostoa abesbatzak bere Santa Ageda kalejiretan abesten duena. Hiru horiek urteko sasoi honekin lotura handia duen laugarren kantu batekin, “Elurra mara-mara” izenburuko abestiarekin, tartekatzen joango dira.



Arratsaldeko lehen orduan Arraten hasiko dira kantuan eta 19:30ean, berriz, Untzagatik abiatuko dira santaeskean, Urkizun amaitzeko



Bihar abestuko dituzten koplak ikasteko entsegu irekia egin zuten martitzenean Musika Eskolan. SILBIAHERNANDEZ

Hiru urte eta gero, argi bila jarraitzen dute oraindik

Astelehenean hiru urte beteko dira Zaldibarko zabortegia amildu zenetik. 2020ko otsailak 6 hartan milaka tona lur eta zabor amildu ziren Verter Recycling enpresak kudeatzen zuen zabortegian, eta gertaera horrek harrotu zituen hautsak oraindik ez dira desagertu. Horregatik, Zaldibar Argitu plataformak ekitaldi berezia egingo du hirugarren urteurrenaren bezperan.



OTSAILAK 5

**ZALDIBARKO
HONDAMENDITIK
3 URTE**

↓ Joaquin eta Alberto gogoan ↓

Ekitaldia EITZAGAN 12:30ean

Txalapartariak
Dantzariak
Lucio Alonso

Zaldibarko zabortegian gertatutako luitziak Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileen biziak eraman zituen aurretik. Hainbat hilabeteren ondoren Sololuzeren gorpuzkiak aurkitu zituzten, baina Beltran lur azpian dago oraindik. “Hiru urte dira Joaquin eta Alberto gabe, erantzun garbirik eta erantzukizun gabe, argitasunik gabe”; Zaldibar Argitu plataformaren berbetan. Sololuze eta Beltran oroitu eta argipenak eta erantzukizunak eskatu asmoz, Zaldibar Argitu plataformak ekitaldia egingo du domekan, 12:30ean. “Eitzagan elkartuko gara musika, lore-eskaintzak eta hitzartzeak uztartuz, Joaquin eta Alberto oroitzeko, interes publiko eta sozialak interes pribatuen aurretik jartzea eskatzeko, Zaldibarren gertatutakoa ez errepikatzen bermeak exijitzeko eta erantzukizun guztiak argitzea eskatzeko”, plataformak adierazi duenez.

Iluntasunari argia emateko

Zabortegiaren amiltzearen ondorioz dioxina, furano eta metal astunez bete ziren inguruan dauden herrien airea, lurra eta ura. Horrela, Zaldibarko hondamendiak alarma, kezka eta ezinegona sortu zuen, baina denborarekin



Zaldibar Argitu plataformak borrokan jarraituko du Zaldibarko zabortegeian gertatutakoaren inguruan erantzun garbia jaso arte.

ahantzuran erortzen joan da bertan gertatutakoa.

Zaldibar Argitu “iluntasunari argia emateko sortu zen”, euren berbetan. “Urte hauetan hamaika aldarrikapen plazaratu eta borrokatu ditugu”, diote, “eta lanean jarraituko dugu gaia ahanzturan ez erortzeko; Alberto eta Joaquin oroitz, gure osasunaren eta ingurugiroaren defentsan eta erantzukizun pribatu zein politikoak argitu arte”, gehitzen dute.

Aurrekariak eta auziak

Zaldibarko zabortegeiaren proiektua 20 urtez gora eta behera ibili ondoren, zabortegeiak 2011n hasi hasi zuen aktibitatea. Tarte horretan hainbat irregulartasun egin ziren zabortegeiaren ingeniarietan eta araudiaren betetzean, baina Eusko Jaurlaritzaren kontroletan ez zen irregulartasun larririk atzeman.

Zabortegeia 35 urtez betetzea aurreikusten zen, 2046. urtera arte. 2012an 185.000 tona hondakin jasotzetik, 2018 eta 2019an 500.000 tona baino gehiago jasotzera pasa zen. Horrela, urte horietan Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian hondakin gehien pilatu zuen zabortegeia izan zen. Gainera, langile batek epaitegian emandako deklarazioen arabera, zabortegeira sartzen

Zaldibar Argitu plataformak Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran oroitzeko ekitaldia egingo du domekan

ziren hondakin arriskutsuetako asko ez ziren araudiaren arabera manipulatu. Eta, horrez gain, 2020ko otsaila baino lehen, zabortegeian zeuden irregulartasunen artean baziren luizia aurreikusteko balio zezaketen batzuk, hondamendia gertatu ondoren argitara eman zen informazioaren arabera.

2021eko maiatzean, Eusko Jaurlaritzak agindutako peritu txostenek ondorioztatu zuten hondamendiaren arrazoietako bat zigilatze-sistemaren akatsa izan zela, zabor masak bertan jarritako geotestilaren euste ahalmena gainditu zuelako.

Zaldibarko hondamendiaren harira bi auzi ireki ziren. Bata, 2021ean itxi zen fiskaltzak, Verter Recyclingek eta hildakoen familiek sinatutako akordioarekin. Bigarrena, ostera, ingurumenaren aurkako delituagatik ireki zuten eta Durangoko Lehenengo Instrukzio Auzitegiaren eskuetan dago.

LOREA URKIA • Miss Grand Euskadi

“Irabazi nuela esan zutenean, ezin nuen sinetsi”

Lorea Urkia da Miss Grand Euskadi berria. Eibartarrak barixakuan jantzi zuen koroa Bilbon egin zen ekitaldian eta, orain, Miss Grand Spain izateko lehiatuko da martxoaren 19tik 26ra, Puerto de la Cruzen (Tenerife, Kanariar Uharteak).

Loreak ez zuen espero eta Euskadiko txapelketa irabazi zuen. Beraz, zergatik ez estatu mailakoa irabaztearekin amestu? Bera, gutxienez, gozatzeko gogoz joango da Tenerifera.

Nola bizi izan zenuen barixakuko ekitaldia?

Ez nuen irabaztea espero. Oso pozik bizi izan nuen, gustora. Demaseko babesa jaso nuen, bai momentuan, bai barixakuko ekitaldia heldu aurretik. Hilabete hauetan guztietan oso maitatua sentitu naiz eta barixakukoa demasekoa izan zen, inoiz ahaztuko ez dudana momentua.

Nolako prozesua bizi izan duzu hilabete hauetan?

Urrian hasi genuen Miss Grand Euskadi izateko prozesua. Domeka guztietan entseguak egiteko geratzen ginen eta dantzen koreografiak, pasarelan nola aritu... lantzen genuen. Gero, barixakuan, goizetik ibili ginen entseatzen dena ondo irten zedin.

Urduri egon zinen?

Momentuak izan nituen. Batzuetan urduri sentitzen nintzen, gero lasaitu egiten nintzen... Emozio asko bizi izan nituen eta zaila da kontrolatzea.

Ekitaldiak aurrera egin ahala parte-hartzaileak kanporatuak izan ziren. Zer sentitu zenuen?

Gogorra izan zen. Hilabete askoan elkarrekin egon garenez, batzuekin harre-

man estua egin nuen eta gogorra izan zen bidean gelditzen zirela ikustea. Pena eman zidan.

Era berean, zuk hurbilago ikusi zenezakeen irabazlearen koroa.

Bai, baina ni ere kanpoan geratzeko beldur nintzen. Izan ere, ez nintzen batere gustora gelditu ekitaldian egindakoa-rekin, gauzak hobeto egin ahal nituela pentsatzen nuen. Horregatik, uste nuen nik ere ez nuela aurrera egingo. Dena dela, poliki-poliki lehian jarraitzen nuela ikusi nuen. Lehenengo hamarren artean ikusi nintzen lehenik, gero bost lehenen artean eta, azkenean, bi lagun bakarrik geratu ginen. Eskutik heldu genion elkarri eta, irabazlea ni nintzela esan zutenean, ezin nuen sinetsi.

Nolako frogak egin behar izan zenuen?

Esan bezala, dantza, koreografia eta pasarela kontuan hartzen dute, baina mentalki eta emozionalki indartzeko hitzaldiak jaso ditugu, oratoria klaseak eskaini dizkigute... Hori guztia garrantzitsua da egoera ezberdinak eta emozioak kudeatzen jakiteko. Izan ere, gauza asko gertatzen dira horrelako prozesuetan. Epaimahaiak lehenengo momentutik baloratu du prozesua. Gu konturatzen ez ginen arren, gure jarrera nolakoa den ikusten zuten, entseguetan zenbateko konpromisoa erakusten dugun, ematen diogun dedikazioa eta ahalegina...







Lorea Urkia Miss Grand Euskadi izendatu zuten unean. PITER DOLAR

“Modaren arloan jarraitu nahiko nuke, baina irakaslea naiz eta hori da gehien gustatzen zaidana”

Bazeneukan esperientzia horrelako kontuetan?

Ez, dena izan da berria niretzat. Lehenengo aldia izateko demaseko esperientzia izan da, gorabehera askokoa. Oso pertsona sentikorra naiz eta gauzak niretzat gordetzen ditut. Orduan, barruan dudana kontatzen ez dudanez, momentu ez hain onak ere bizi izan ditut. Dena dela, oso ondo pasatu dut. Domekako entseguak heltzen zirenean oso ondo pasatzen nuen, eta entseguak amaitzen zirenean hurrengo domeka iristeko gogoz negoen.

Domekatik domekara, astean zehar, etxean entseatzeko zenuen?

Bai. Beste gala batzuetako bideo asko ikusi ditut eta asko ikasi dut. Ikusitako horretatik gehien gustatzen zitzaidana egiten saiatzen nintzen etxean edo garajeetan, toki gehiago nuelako.

Nola animatu zinen Miss Grand Euskadin parte hartzera?

Norbaitek idatzi zidan bertan parte hartzera animatuz eta, denbora batez pentsatu ondoren, aukera aprobetxatzea eta gozatzea erabaki nuen. Oso gustora nago pauso hori ematearekin.

Miss Grand Spainen lehiatuko zara orain. Zein da zure helburua?

Esperientzia bizitzea, gozatzea eta ondo pasatzea. Oraingoan, gainera, astebete egingo dugu han eta Euskadikoarekin alderatuz ezberdina izango da, biziagoa. Hilabete daukat ekitaldia ondo prestatzeko eta horretarako egingo dut lan.

Gertatzen dena gertatzen dela, modaren eta edertasunaren munduan jarraitzeko asmoa duzu?

Lehiaketa honetan parte hartu aurretik moda arloan lan batzuk egin ditut modelo bezala. Gustatzen zait eta arlo horretan jarraitu nahiko nuke, baina irakaslea naiz eta hori da gehien gustatzen zaidana.



Gurasoak Berbetan eta Ongietorriko familiak Lasturren izan dira

Aurreko astean egin zuen eguraldi desatseginari aurre eginez, autobus betea irten zen Eibartik zapatu goizean Lasturrerako bidean. Autobus barruan zihoazen Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programe-tako hogeita bat familia, 24 heldu eta 33 ume, eta plana ez zen txarra: Lasturreko errota bisitatu eta talo-tailerrean parte hartu. Ongietorri goxoa egin zieten Eibartik joandako familiei, eta, askotxo zirela kontuan hartuta, talde bitan banatu zituzten. Batzuk errota bisitatzen zuten bitartean, beste batzuk inguruari buruzko bideo interesgarria ikusi zuten, eta gero alderantziz. Iraganeko altxor preziatua da Lasturreko

errota. Mendeetan zaindu da eta, horri esker, gaur egun ere martxan jarri eta irina egin daiteke bertan. Eta horixe da, hain zuzen, eibartarrekin egin zutena, errota irina atera. “Elektrizitaterik gabe, antzina bezala funtzionatzen du errota, eta harrigarria izan da funtzionatzen ikustea”, familien berbetan. Behin irina lortuta, hurrengo pausoa izan zen, seguruenik, etxeko txikieneztat alderik dibertigarriena: “Talo gozo-gozoak irten zitzaizkigun, gazi-gozoak. Batzuk txorizoarekin jan zituzten, eta beste batzuk, berriz, txokolatearekin. Denon gustuko taloak egin genituen. Zapatuko hotzari aurre egiteko modu hobegorik!”.

Bertoko ohituretara hurbildu

Zapatukoa jardura interesgarria eta aberasgarria izan zen heldu zein umeentzat. Hala diote ...eta kitto!-ko antolatzaileek: “Errota zaharra funtzionamenduan ikusiz eta bertako arduradunen azalpenak entzunez, gaztetxoak ogibide zaharra ezagutzeko eta landa-inguruko bizi-moduarekiko hurbilago sentitzeko aukera bizi izan zuten”. Berezia izan zen guztientzat, baina bereziki Ongietorri programako familientzat: “Harrera eta elkarbizitzarako programa da Ongietorri, eta horrelako ekintzekin lortu nahi duguna da jatorri ezberdinetako familiak bertoko kultura, hizkuntza eta ohituretara hurbiltzea. Gainera, Eibarko guraso berbalagunekin batera egin ohi ditugu horrelako irteerak eta oso hartu-eman polita sortzen da euren artean”, antolatzaileek diotenez.

Barixakuak Jolasian ekimena Txaltxa Zelaira


Gaur ekingo dio Barixakuak Jolasian ekimenak otsaileko egutegiari, joan den barixakuan Urkizukoarekin urtarrilekoa agurtu ondoren. Txaltxa Zelaiko harmaila inguruan egingo dira jolasak, euria egingo balu kiosko barruan, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, doan. Lau

begiralaren laguntzarekin ordu-bete polita igaroko dute 17:00etan hasita 18:00ak arte. Hurrengo saioa otsailaren 10ean izango da, Torrekuako parkean, eta aurten go ikasturteko azkena Urkizuko parkean egingo da aratosteak eta gero, otsailaren 24an.



Izarretara gerturatzen laguntzen digun zientzia

Atzo arratsaldean egin zen Javier Gorosabel I. Topaketa Coliseo antzokian. 2015ean hil zen astrofisikari eibartarraren omenez antolatutako topaketa hori Eibarko Udalak eta Espainiako Astronomia Elkarteak zientzia-dibulgazioa sustatzeko 2020an sinatutako hitzarmenaren barruan kokatzen da. Hitzarmenaren arabera, saria eta topaketa, biak tartekatuko dira bi urtean behin.



Topaketaren kartela egiteko erabili den irudia Markel Martin irundarrak egin zuen, familiari oparitzeko.

Lehen aldiz egin den astronomiari buruzko topaketan Javier Peraltak, Sevillako Unibertsitateko Fisika Fakultateko irakasle eta 2022 Javier Gorosabel Sariaren irabazleak, hitzaldia eman zuen eta, ondoren, Almeriako Calar Alto behatokiarekin zuzeneko konexioa egin zuten, astronomia-behaketak bat egiteko.

Peraltaren hitzaldiaren izenburua 'Astronomía a la caza de la discontinuidad de Venus' izan zen. Hain zuzen ere, gai horri zor dio Astronomiako ProAm kolaborazio onenari (profesionalek eta amateurrek osatutako batzordea) 'Javier Gorosabel Saria 2022' Peraltak. Irakasleak Emmanuel Kardasis astronomo amateurrarekin batera eskuratu zuen saria.

Talde irabazleak Artzarraren atmosferaren azterketa bat aurkeztu zuen, zehazki Javier Peraltak Akatsuki misioaren datuetan aurkitutako etenaren azterketa. Behaketak hainbat herrialdetako astronomo zale talde batek egin zituen. Horietan, aipatutako etenaldi edo haustura berriz agertzen zela ikusi zuten, eta haren bilakaera monitorizatu zuten 2019-2020 aldian. Azpimarratu behar da eremu amateurraren, hau da, zaletuen inplikazioa ezinbestekoa izan zela modu jarraituan Venusen irudiak lortzeko. Gainera, haren atmosferako ezaugarrien bilakaera aztertzeko



Ezkerrean, astronomo zaletuen teleskopioak erabilia lortutako irudietan, Artzarraren atmosferako hausturak ikus daitezke. Aldamenean Javier Peralta irakaslea, saria eskuan duela: 6192 Javiergorosabel asteroidearen brontzezko erreplika.

moduko kalitatea duten irudiak dira, soilik zaleen teleskopioak erabiliz lortutakoak. Hain zuzen ere, Javier Gorosabel Sariak estatu mailako astronomian profesionalen eta amateurren arteko lankidetzaren bikaintasuna baloratzen du, eta hala nabarmendu nahi izan zuten topaketaren aurkezpenean: “Astronomia zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago konturatzen gara zein zirraragarria den eta, nolabait, haren parte ere bagarela. Gainera, astronomo profesionalak nahiz amateurrek elkartzeko gaitasuna duen zientzietako bat da”. Horrekin batera, sariak Gorosabelen ProAm lankidetzaren ibilbide luzea ere goraiatzen du. Izan ere, zientzialari bikaina izateaz gain, astrofisikari eibartarrak astronomo amateurren hainbat talderekin elkar hartuta lan egiten jakin baitzuen.

Nazioarteko astronomia-komunitatearen aitortza

Astronomia Topaketari zein Sariari izena ematen dien Javier Gorosabel Urkia 1969an jaio zen Eibarren. Bi espezialitatetan, Astrofisikan (1992) eta Oinarritzko Fisikan (1994), lizentziatu ondoren, zientzialari-ibilbide paregabea egin zuen Gorosabelek eta gamma izpien eztanda kosmikoen fisikan azken 15 urteotan eibartarrak egindako ekarpenak funtsezkotzat hartzen ditu nazioarteko astronomia-komunitateak gaur egun ere.

Gorosabel 2015eko apirilaren 21an hil zen, gaixotasun larri batek jota. Beraren omenez, besteak beste, Eibarren berariaz egindako hilarri bat jarri zen Girgillaoko behatokian (Nafarroa) eta “JGT” (“Javier Gorosabel Telescope”) izena jarri zioten BOOTES Sare Globaleko bosgarren teleskopioari, Kalifornia Behereko San Pedro Martir-eko Behatoki Nazionalean (Mexiko).

**Gamma izpien
eztanda kosmikoen
fisikan Gorosabelek
egindako ekarpenak
funtsezkotzat hartzen
dituzte mundu osoko
astronomoek gaur
egun ere**

Bideoa gure YouTube
kanalean ikusgai



Azken berritze-kanpaina amaituta, Eibar FT-k 6.000 abonatu ditu

Abonuak berritzeko kanpaina amaitu ondoren, Eibar FT-k 6.000 abonatu baino gehiago ditu. Gaur egun klubak 6.034 abonatu ditu, 2022ko ekainaren 30ean 5.565 abonatu zituenen; hau da, orduan baino 469 gehiago. 6.000ko langa irailan gainditu zen eta, behin karretak berritzeko kanpaina amaituta, maila horri eusten zaio. Berritze-kanpaina amaituta, Ipuruan erreserbatutako eserlekuen ehunkoa edukieraren 88,5 da. Guztira 658 sarrera jarriko dira salgai ligako partiduko bakoitzean, edukieraren %11,5.

Klubak "Oparirik txarrena" leloarekin abian jarritako azken kanpainan 140 alta berri eman ziren

Gabonetan. Gaur egun, abonuen %66,6 Eibarren bizi diren lagunei dagokie. 1.000 abonamendu inguru (%16,5) Bizkaiko Durangaldetik datoz, %9,90 Debagoienetik, Debarrenetik eta inguruko beste herrietatik, eta %7 beste eremu batzuetatik.

Sortu berri den familia-harmailari dagokionez, osorik okupatuta dago, eta handitu egin behar izan da sortutako eskaerari erantzuteko. Gaur egun 196 abonamendu daude guztira (94 haur, 18 gazte eta 82 heldu) harmaila horri lotuta, eta prezio bereziak eskaintzen dizkie familian izena ematen dutenei, betiere haurrentzako abonuak badaude.



Eibar FT-k inoiz baino abonatu gehiago ditu.

Binakako txapelketako Laso-Imaz eta Altuna-Tolosaren arteko norgehiagoka ikusteko interes handia dago pilotazaleen artean

Hori ematen du aditzera sarreren salmentak daraman martxak, martitzenerako bakarrik 300 geratzen zirelako erosi gabe. Binakako Txa-

pelketa nagusia azken fasean sartu da dagoeneko eta, lau jardunaldiren faltan, bikote bakoitza bere tokia doa hartzen sailkapenean.



Azpeitiko Goienetxe Fundaziokoak pilota-aukeraketan izan ziren euren gogoko pilotariek.

Laso-Imaz eta Altuna-Tolosa bikoteen arteko txapelketa horretako partidua izango da Astelenan domekan jokatu den jaialdiko partidua nagusia. Baikoko zein Aspeko bikoteek, biek, sailkapeneko bigarren postua bilatzen dute une honetan: Aspekoek 105, 105,2 eta 105,7 gramoko pilotak aukeratu zituzten martitzenean egindako pilota-aukeraketan; Baikokoek, bestalde, zertxonait arinagoak apartatu zituzten (104,5, 104,9 eta 105,2).

Aurretik, Binakako Promozio Txapelketaren barruan, Eiguren V-Erostarbe eta Larrazabal-Eskiroz bikoteek neurtuko dituzte indarrak; eta, amaitzeko, Elezcano eta Arbizu izango dira alde batetik eta Dario eta Gaskue bestetik, nor baino nor.

Unai Fernandezek hirugarren jarraitzen du Euskal Txakurkros Ligan

Azken asteburuan bi probetan hartu zuten parte gure herriko txakurkrosleriek. Batetik, Unai Fernandezek eta “Duncan” bere txakurkros Zumaian jokatuako Euskal Txakurkros Ligako zortzigarren jardunaldian hartu zuten parte, antolatzailerik prestatutako 8 kilometroko ibilbidea osatuz. Lasterketa guztian maila emanik, Eibarko bikotea hirugarren postuan helmugaratu zen eta, horrela, Ligako sailkapenean ere hirugarren postu horri eusten diote. Euskadiko Txakurkros Liga amaitzeko bi proba geratzen dira bakarrik: domekan Zierbenan jokatuako dena eta hurrengo astebu-



Unai Fernandez (3 zenbakiarekin) eta Duncan aurrenekoekin Zumaiaiko lasterketan.

ruan (otsailak 11/12) Hondarribian egingo dena.

Bestalde, Andoni Mayo “Dexter” txakurrarekin eta Sonia Dominguez “Zeus”-ekin Salamancara gerturatu ziren, bertan antolatutako bi etapa-ko lasterketan parte hartzeko. Za-

patu gauean eta domeka goizean, bietan ibilbide berarekin, nagusi izan zen Mayo-Dexter bikotea, horrela garaipena gurera ekartzeko. Bizkorrenen artean izan zen baita Dominguez-Zeus bikotea ere, azken sailkapenean laugarren amaitzeko.

Sanblas koloreko irteeraz gozatu zuten Deporreko mendizaleek

Aurreko zapatuan “Herri Txikiak” zeharkaldiaren bigarren etapa osatu zuen mendizaleen taldeak “benetako neguko txangoa” dastatu zuten, bide osoan elurra zapaltzeko aukera biziz; bertan izan zirenek dioten modura, “eskerrak taldeko gehienak raketekin ibili zirela”.

Ohikoa baino talde txikiagoa ausartu zen aurrekoan Deporreko mendi irteeran parte hartzera: “Jakina, eguraldi deserrosoa espero zenez, ausartenak bakarrik bildu ziren; hala ere, merezi izan zuen guztiz zuriz jantzitako mendian ibiltzea”. Arantzan hasi eta Zubie-

tan amaitu zuten etapa, bidean Mendieder (1.071 metro), Ekaitza (1.046) eta Loitzate (1.048) eginez.

Hurrengo irteeran Herri Txikiak zeharkaldi horretako hirugarren etapa osatuko dute, otsailaren 11n Zubietatik Leitzaraino eramango dituen ibilbidearekin. Bidean Irakurri gainera (1.142 metro) igoko dute, 1.385 metroko igoera metatuarekin, eta 1.115 metroko jaitsierarekin. Antolatzailerik diotenez, oso paraje polita zeharkatuko dute eta tontorrek ere ez dira gutxi izango: Artxinga, Lexarburu, Soingo Gaina, Arriurdineta eta, jakina, Irakurri. Interesatuak Klub Deportiboko bulegoetara jo dezakete martitzen eta eguenetan (19:30-20:30) edo 943 201904 telefono zenbakira deitu informazio gehiago jasotzeko.



Herriko kirol-eragileei egindako aitortzarekin ekin die Udalak 'Eibar Kirolaren Europar Hiria 2023'-ko jarduerari

Martitzenean Portalean egindako ekitaldian kirol-kluben, kirol-espazioen, ikastetxeen eta kirolarekin lotutako beste eragile batzuen 60 bat ordezkari izan ziren. Herriaren hautagaitzarako Udalak prestatu zuen bideoa proiektatu ondoren, ordezkari bakoitzari abenduaren 6an Bruselan Jon Iraola alkateak eta Ander Curiel Kirol zinegotziak jaso zuten “Eibar Kirolaren Europako Hiri” izendapenaren diplomaren kopia bana eman zitzairen, aitortza horretarako sortutako logoaren erreplikarekin batera. Amaieran, bestalde, omenaldia egin zitzaion orain dela gutxi hildako Manu Aguirreri, urtetan Eibarren judoaren alde egindako lana aitortzeko.

Kirolaren Europar Hiriaren aitortza lortu zela berretsi ondoren, Udalak kirol-ekimenen programazio bat diseinatzeari ekin zion,



Eibarren kirolaren alde egiten den apustua eta lana indartzeko. Ekimen horietako batzuk zehaztu dira dagoeneko, hala nola datorren apirilean egingo den Itzulia Basque Challenge 2023, Itzuliaren lehen lasterketa zikloturista; 2023ko uztailean antolatuko den Munduko Juggler Txapelketa; edo aurki txakurrekiko kirolean arituko den

herriko klub bat Udalak sortzen laguntzea. Iraola alkatearen hitzetan, “Eibar Kirolaren Europar Hiria baldin bada kirol-ekosistema aktiboa duelako da, era guztietako kirol-diziplinak sustatzen dituzten klubak dituelako, eta era guztietako adin eta baldintza fisikoak dituztenentzako kirol-instalazioak eta -espazioak dituelako”.



Kalamuako Markel Simonek brontzea lortu zuen Gipuzkoako Junior Txapelketan

Legazpiko Urbeltz frontoian jokatutako junior mailako Gipuzkoako Txapelketan Kalamua judo klubeko hiru ordezkari hartu zuten parte eta Markel Simonek brontzea eskuratu zuen 90 kilotik beherakoan

mailan. Gaizka Merinok, lehen respakakoa irabazi bazuen ere, bigarrenean amaitu zuen bere ibilbidea. Oihana Gonzalezek, azkenik, 57 kilora arteko mailan, ez zuen lehen kanporaketa gainditu.

Eibarko Txirindulari Elkarteak denboraldiko egutegia prestatu du

Otsailaren 12ko Udaberri Kontzertuaren ondoren, martxoaren 5ean junior mailako 45. Udaberri Saria jokatuko da, apirilaren 2an elite eta 23 urtetik beherako 52. Valenciaga Memoriala, maiatzaren 7an kadete mailako 6. CCE Sari Nagusia, maiatzaren 28an UCI mailako emakumezkoen 5. Eibar Hiria Sari Nagusia, ekainaren 18an jubenil mailako 87. San Juan Sari Nagusia eta, behin udako oporretatik bueltan, irailaren 24an Pedal edo Bizikleta Egunaren 18. edizioa egingo da eta, amaitezko, San Andres aurretik, Txistorra Egunak bere 19. edizioa ospatuko du.



ASIER EZENARRO

Terrorismoa, gezurrak eta telebista

Aurreko astean kazetariak eta tertulianoek bi gertakari desberdinen inguruan emandako azalpenak entzun nituen. Algecirasen bi elizetan gertaturiko erasoek hildakoa eta zauritu bat eragin dituzte. Hiltzailea lunpeneko marokozarra ei zen. Marokoko erreinuak Espainiarantz eta Europarantz bidaltzen duen soberakin populazioa, tartean salafistak eta marjinalak. Beste alde batetik, Miranda de Ebron 74 urteko erretiratua atxilotu zuten Pedro Sanchezi eta hainbat erakunderi gutun-bonbak bidaltzeagaitik akusatua.

Manu Marlaska La Sextan lan egiten duen kazetariak azpimarratu zuen jubilatuko horren etxean Pasionaria eta Che Guevara-ren horma-irudiak aurkitu zituztela (hori delitu bat izango balitz bezala) eta gizon horrek “en su delirio procomunista y prosoviético” Sobietar Batasunaren aldeko propaganda zuela bere etxean. Gainera, artikuluko batean esan zuen Algeciraseko marokozarraren jarrera eta jubilatua oso “antzerakoak” direla. Eta nik bi kasu horien artean ez dut inolako antzik ikusten. Ez dut arrazoitzen jubilatua ekintza, baina Marlaska kazetariari galdera bat egingo nioke: Ez dakizu Espainia gerra batean sartuta dagoela? Zer da ba tankeak eta armak bidaltzea?

Oso ezaguna den beste tertuliano batek ere bere iritzia eman du Algeciraseko krimena komentatzen. Iker Jimenezek gidatzen duen “Cuarto Milenio” saioan, Jose Cabrera (“Doctor Cabrera”) munduan dagoen terrorismo erlijioso bakarra islamikoa dela esan zuen. Eta hori ez da egia. Indian ehundaka lagun (gehienak musulmanak) hil dira fundamentalismo hinduarren ondorioz. Palestinan judutar fundamentalismoak biolentzia arrazistaz ekiten dio arabiarren aurka. Eta, Ipar Amerikan, AEBetan terrorismo ebanjelikoa oso indartsua izan da azken hamarkadetan.

Nahaste borraratea egitea eta guztia zaku berean sartzea bide onena da ezer ez ulertzeko. Hori egiten dute telebistetan agertzen diren kazetari askok. Agian ona izango litzateke irakurketa gehiago izatea eskura eta polizien artean gutxiago ibiltzea.

Nahaste borraratea egitea eta guztia zaku berean sartzea bide onena da ezer ez ulertzeko. Hori egiten dute telebistetan agertzen diren kazetari askok.

“Negarrik egin nahi ez dugunez, irribarreen gainetik barre egingo dugu”

ERNESTO BARRUTIA • La Novena antzerki taldearen zuzendaria



Esperientzia Eskolako 9. promozioak uzta oparoa eman zuen, oso artistikoa. Handik irten zen La Novena antzerki taldea eta hamar urtetan zehar hainbat ikuskizun eskaini dituzte han eta hemen. Normalean urtero aurkezten dute lan berri bat, eta orain ‘Sonrisas y risas’ antzezlanarekin datoz. Hilaren 9an egingo dute estreinaldia, 19:00etan, Coliseo antzokian.

Umorea ardatz duen ikuskizuna da ‘Sonrisas y risas’. Bertan, zortzi fartsa antzeztuko dituzte, Rafael Mendizabal antzerkigile donostiarraren zazpi eta Anton Chejov antzerkigile errusiarraren lan bat. Ernesto Barrutia zuzendariak esan digunez barre egiteko bi ordu izango ditugu Coliseoan eta, gainera, Juan Luis Agirre pianojoleak musika jarriko du obra batetik bestera.

Nolako ikuskizuna prestatu duzue?

Barre asko eragingo duen ikuskizuna da. Orokorrean umorezko gauzak egiten ditugu, hori delako jendeak eskatzen diguna. Ni ez nago hain ados, baina tira (barreak). Beste erregistro batzuk lantzea nahiko nuke, baina talde amateurra gara eta hori da irteten zaiguna. **Gutxienez, momentu dibertigarriak pasako dituzue horrelako lanak egiten, ezta?**

Bai, eta publikoak ere oso ondo pasatzen du gurekin barre egiten. Tragedia bat kontatuko bagenu edo, aspaldi Kultun egiten genuen bezala, obra iraultzailearen bat, beste kontu bat izango litzateke.

Nolako lanak antzezten zenituzten Kultun?

Adibidez, Aljeriako independentziaren ingurukoak, Alfonso Sastrenen obrak, torturari buruzko eszenak,

independentzia lortzeko borroka... Sasoi hartan, gainera, zentsura handia zegoen hemen eta polizia entsegu orokorra ikustera etortzen zen.

‘Sonrisas y risas’ izenburua jarri diozue ikuskizunari. ‘Sonrisas y lagrimas’ pelikularekin izenburuarekin egingadako hitz-jokoa da?

Hori da! Negarrik egin nahi ez dugunez, irribarreen gainetik barre egingo dugula azpimarratu nahi dugu. **Zortzi fartsa antzeztuko dituzue. Azalduko duzu fartsa bat zer den?**

10-15 minutuko obrak dira, esketx modukoak. Taldean aktore asko gara eta guztiok parte hartu ahal izateko egiten dugu horrela. Bestela, obra arrunt bat egingo bagenu, nahiz eta zortzi edo bederatzi pertsonaia egon, gutako baten bat beti gelditu beharko litzateke kanpoan. **Juan Luis Agirre izango duzue lagun pianoan. Nolako papera izango du berak ikuskizunean?**

Zoragarria da bera! Beti prestatzen ditugu abesti batzuk eta sei abesti kantatuko ditugu Isa Gonzalezek eta biok, Jose Luisen laguntzarekin. Fartsa batetik bestera dagoen tarte horretan abestuko dugu, eszenatoki bat kendu eta hurrengo montatu bitartean.

Beraz, antzezteaz gain, abestu ere egiten duzue!

Bai! Egia esan, Isa demaseko ezustekoa izan da. Oso



Barre egiteko ikuskizuna izango dela esan digu Ernesto Barrutia zuzendariak. EKHI BELAR

aktore ona izateaz gain, bikain abesten du. Beti gustatu izan zaio abestea, baina orain hasi da kantu-eskolan eta zoragarria da. Inoiz ez da berandu!

Ikuskizuneko zortzi fartsetako zazpi Rafael Mendizabalena dira. Zergatik aukeratu dituzue?

Zenbait autore aztertzen ibili ginen zein obra antzeztuko genuen erabakitzeke eta bere lanak oso barregarriak iruditu zitzaizkigun. Donostiarra bazen ere, ez nuen ezagutzen. Bestetik, Anton Chejoven obra bat antzeztuko dugu amaieran. Chejov oso dramaturgo berezia da, oso umore berezia du.

Zein umore mota lantzen duzue?

Chejoven umorea nahiko garrantza da, baina Mendizabalena nahiko zuria, nahiko normala. Bestalde, guk ere zenbait ekarpen egin ditugu eta broma batzuk gehitu dizkiegu testuei. Obrak borobildu nahi izan ditugu baldarkerian erori gabe.

Zu zara zuzendaria, baina beste kideek ere ekarpenak egiten dituzte?

Bai, guztiek hartzen dute parte eta euren iritzia ematen dute lanak aukeratzekoan, esan beharrekoa zehazterakoan eta abar. Oso giro polita dago taldean.

“Mendizabalen eta Chejoven obrei zenbait ekarpen egin eta broma batzuk gehitu dizkiegu testuei”

Zure ibilbidean antzerki-konpainia profesionaletan ibili izan zara. Nolako da aktore amateurrek zuzentzea?

Konpainia profesionaletan egunean zortzi orduz egiten genituen entseguak. Orain, egoera bestelakoa da eta ezin naiz oso zorrotza izan. Gainera, aktoreek iniziatiba izatea gustatzen zait. Adibidez, eszena baten ezaugarriak ematen dizkiet (egoera azaldu, espazioa zein den, euren ezaugarriak...) eta antzezteko eskatzen diet. Ez bazait gustatzen, aholkuak ematen dizkiet eta poliki-poliki aktuzioa borobiltzen goaz. Kontua eurak ausartzea da, gero zuzenduko dugu zuzendu beharrekoa.



'Sonrisas y risas' ikuskizunaren pasarte bat. LANOVENA

'Sonrisas y risas' prestatzeko nolako lana egin behar izan duzue?

Hamar hilabete inguru ibili gara ikuskizuna prestatzen. Hasieran entseguak astean behin egiten genituen, baina ikuskizun honetan nahaste-borraste batean sartu gara eta astean birritan bildu behar izan gara azkenean.

La Novenak hainbat urte daramatza martxan dagoeneko. Eboluzioa igarri duzue?

Nire pozerako, bai. Adibidez, gogoratzen dut hasieran 'Bernarda Alba' obraren irakurketa egin genuela eta kide bati esan nion bera Bernarda izango zela. Oso urduri jarri zen eta ez zitzaion ondo irten, baina zerbait berezia zuela ikusi nuen. Ez nenbilen oker eta gaur egun oso ondo moldatzen da.


Beraz, gure artean antzerkirako talentua duen jende asko egon daiteke eta, agian, eurek ere ez dakite hori?

Izan daiteke. Isak, adibidez, esan zidan aspaldi Arrate Taldean zerbait egin zuela, baina gero laga egin zuela, eta beti ibili dela antzerkia egiteko gogoz. Bilbora joan behar zen ikastera, baina La Novena antzerki-eskola ona izan zitekeela esan nion eta geratu egin zen. Hori

“Aktoreek inizatiba izatea gustatzen zait. Gero, ez bazait gustatzen, aholkuak eman eta zuzenduko dugu zuzendu beharrekoa”

bai, gizonezkoen falta izan dugu beti. Horregatik, 'Sonrisas y lagrimas' antzezlanean Gorka Errastik hartuko du parte gurekin. Gorkarekin antzerkian hainbat lan egin ditut aurretik eta gogotsu zegoela banekien. Beraz, aukera eskaini nion eta berehala esan zuen baietz. **Iaz martxan jarriz zen Antzerki Laborategian dabil bera. Horrelako ekimenak beharrezkoak dira herrian antzerkigintza sustatzeko?**

Gu aitzindariak izan ginen Kultun frankismoaren sasoian. Gero, hor dago Narruzko Zezen eta baita Antzerki Jardunaldiak ere, baina egia da zerbaiten falta egon dela.



Kontaktuak saihesteko ihesaldi betean. RAMON BEITIA



Markos Untzeta Coliseon grabatutako “Agian bai, agian ez” bideoklipa ikusgai dago

Markos Untzeta musikari eibartarraren azken diskoko “Agian bai, agian ez” kantuarekin egindako bideoklipa YouTubean ikusi eta entzun daiteke martitzenaz geroztik eta, zalantza barik, lanak kutsu eibartarra dauka: Coliseon grabatzeaz gain, Helmholtz organoak protagonismo handia hartzen baitu bertan.

Azaroaren 23an ibili ziren bideoa grabatzen eta, horretarako, “Ekilibrista” lan berriaren kantu hori zuzenean jo zuten antzokian. Ekoizpenean Naia Aizpurua (zuzendaria), Angello Eloizaga (argazki zuzendaria) eta Julen Leturiondo (produktzioa) aritu dira. Markos Untzetaarekin batera parte hartzen duten musikariak, bestalde, Giovanni Zanon (gitarra elektrikoa), Walter Tuzzeo (baxu elektrikoa), Iñaki Ortega (bateria) eta Mikel Gaztelurrutia (Helmholtz organoa) dira. Markos Untzeta eskerrak eman nahi dizkie guztiei, eta baita “Eibarko Udalaren kultura sailari eskainitako laguntzagatik, Coliseoko langileei lana errazteagatik eta, bereziki, Helmholtz organoa utzi zigun Jesus Maria Aguirreri eta bere garraioan eta mantenuan parte hartu zuen Call&Play-ri ere”, dio Markosek.

“Bizi izandako krisialdi bati eta pandemiak sortutako egoerari erantzun sortzaile eta bizizale bat eman nahi izan nien”, azaldu zuen Markos Untzeta udazkenean, ‘Ekilibrista’ diskoaren aurkezpenean. Lan berriak hamar abesti ditu eta, blues, country eta pop-rock amerikarraren bidetik, soiltasuna eta gardentasuna lortu nahi izan ditu musikari eibartarrak.

“Ekilibrista” Markos Untzeta-aren seigarren diskoa da eta, oraingoan ere, Gaztelupeko Hotsakekin ekoiztu du lana. Apirilaren 26an izango dugu lana zuzenean entzuteko aukera, eibartarrak Coliseo antzokian emango duen kontzertuan.



Koko-dantzak ikasi nahi dituztenentzat saio irekiak

Otsailaren 11n ailegatuko zaizkigu koko-dantzak, Kezka dantza taldearen eskutik. Urteroko martxan, goizetik hasiko dira, 08:30ean Errebalen, baserriarren postuetan eta, hango dantzak amaituta, baserrietako ibilbideari ekingo diote, aurtien Mandiola eta Gorosta auzoetan. Arratsaldean, berriz, 19:00etatik 21:00etara Eibarko kaleetan ibiliko dira eta, arratsaldeko kalejiran parte hartu nahi duten guztientzat, ikastaro irekiak antolatu dituzte: otsailaren 6an (astelehena) eta 9an (eguna) izango dira dantzen entseguak, 19:30ean Errebal Plazan (egun horietan egingo da koko-jantzien banaketa ere). Horrez gain, Masusten kontra-dantza-aren bideo tutorialak ikusgai daude Kezka taldearen sare sozialetan.



“La inocencia” filmari buruzko zine-foruma

Gaur arratsalderako zine-forum saioa antolatu du Pagatxa emakumeen elkarteak, 18:30ean Portaleko areto nagusian. Gaurko saioan Lucía Alemany zuzendariaren “La inocencia” filma emango dute eta, jarraian, Izaskun Rodríguez Elkorok dinamizatutako solasaldia egingo da. Beti bezala, saiora sartzeari librea eta dohainik izango da, parte hartzeko interesa duen edozeinentzat.



Marta Alonsoren “Bailar agora” dantza ikuskizuna gaur arratsaldean Coliseon

Marta Alonso Tejada konpainiak “Bailar agora” dantza ikuskizuna taularatuko du gaur Coliseon, 19:00etan. Marta Alonsok berak zuzendu eta interpretatu egiten duen lan honetan, 80-90. hamarkadetan jaio eta hazi den dantzariaren azalean sartzen da, dantzari eta emakume gisa egin duen ibilbidea publikoarekin partekatuzeko. Galiziatik datorren dantzariak sari garrantzitsu ugari jaso ditu lan honengatik eta ikuskizuna antzoki garrantzitsuetan eskaini du, arrakasta handiarekin. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



Maiden Cenitagoyaren liburu aurkezpena domekan

Domekan, 18:00etan aurkeztuko du “El término empatía y su aplicación en la consideración hacia los animales no humanos” liburu bere egileak, Maiden Cenitagoya Alcelayk (Eibar, 1998), Portaleko areto nagusian. Lanaren egilea EHU graduatutako filosofoa da, UNEDeko master ofizialean Filosofia Teorikoan eta Praktikoan espezializatua. Gaur egun, filosofia gaietan trebatzen jarraitzen du, irakasle gisa aritzeko.

Zabaldu dute Aratosteetako kalejirarako izen-ematea

Eguaztenean zabaldu zen otsailaren 18an, Aratoste zapatuan, herriko kaleetan egingo den kalejiran parte hartzeko izen-ematea, Udalaren webgunean. Parte hartu nahi dutenek hilaren 17ra arteko epea daukate izena emateko. Udalak antolatutako kalejira-lehiaketan hainbat kategoria bereiztuko dira eta guztira 1.000 euro banatuko dira saritan.

Zaharberritzea ikusteko bisitak



Untzagako dorretzeko fatxada nagusiaren balkoia apaintzen zuen arkabuzariaren irudia berritzeko lanak bertatik bertara ikusteko aukera egongo da datorren barixakuan, otsailaren 10ean. Artemis enpresak dihardu lana egiten, Portaleko 3. pisuan, Giorgio Studer eta Miriam Cano

adituen eskutik, eta bi bisita antolatu dira egun horretarako: 16:30ean izango da lehena, euskaraz, eta bestea 17:30ean egingo dute, gaztelera. Interesa duenak Udalaren webgunean dagoen formularioa bete beharko du, otsailaren 6a baino lehen.

Antzerkirako sarrerren salmenta

Astelehenaz geroztik, Coliseoko leihatilan eros daitetzke 46. Eibarko Antzerki Jardunaldietako antzezlanak ikusteko sarrerak, aurresalmentan. Astelehen eta barixakuetan egongo da horretarako aukera, 17:30etik 19:30era. Sarrerak aurrez aurre erosteko aukeraz gain, Interneten ere eskuratu ahal dira, Kutxabanken plataformaren bitartez.



Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko bisita gidatuak

Eibarko Armagintzaren Museoak erakusketa iraunkorrera doako bisita gidatuak antolatu ditu. Otsailaren 25ean egingo dira, 17:00etan euskaraz eta 18:30ean gaztelera. Bisita egiteko beharrezkoa da aurretik izena ematea, museoa@eibar.eus helbidera idatzita (gehienez 20 lagun onartuko dituzte taldeko).

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

3			7	6	
6				1	4
1		4		3	7
			9	4	
			6	7	
		3	8		
	2	9		5	
5	4	1			6
	3		2		5

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	8			9				6
			6	1				8
				3		7	4	2
2							7	1
3	6							4
7	3	1		9				
	5			2	1			
9			4					6

**S
U
D
O
K
U**



AURKITU 8 EZBERDINTASUNAK

BURUA ZERTXOBAIT ASTINTZEKO BI ARIKETA

Egia esaten badidazu, nire ezpatarekin hilko zaitut. Gezurra esaten badidazu, nire sorginkeriarekin hilko zaitut
Zer esan behar dut bizirik jarraitzeko?

Zure sorginkeraren hilko naitut.

Bi gizonezko izoztutako teak eskatu zituzten edateko: batek bost edan zituen besteak bakarra hartzen zuen bitartean. Jakinda edari guztiak pozoituta zeudela, zergatik hilko zen bakarra hartu zuena eta bestea ez?

Phisika lotu bertuen egoera eta teak hartu zirenak ez ziren teak bostak hartu.

Otsailak 3/9

BARIXAKUA 3

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Jolasak, 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Doan. Txaltxa Zelaian.

ZINE-FORUMA

18:30 "La inocencia" (Lucía Alemany). Dinamizatzailea: Izaskun Rodríguez Elkoro. Portalea (areto nagusia).



DANTZA

19:00 "Bailar agora" (Marta Alonso Tejada konpainia). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



ZAPATUA 4

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 2-12 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

SANTA AGEDA

16:00 Eibarko Udal Musika Eskolako irakasle eta ikasleen santaeskea, trikitalariekin. Arratetik Urkizura.

19:30 Santa Ageda bezperako ekitaldi irekia, Udal Musika Eskolaren eskutik. Untzagatik Urkizura.



DOMEKA 5

LIBURU AURKEZPENEA

18:00 "El término empatía y su aplicación en la consideración hacia los animales no humanos", Maider Ceni-tagoya Alcelayren liburua-ren aurkezpena. Portalea (areto nagusia).



ASTELEHENA 6

IKASTAROA

19:00 Filosofia ikastaroa, Marina Iglesiasen eskutik. Portalea.

KOKO-DANTZAK

19:30 Koko-dantzak ikasteko saio irekia. Errebal Plaza.

MARTITZENA 7

BERRIKETAN IKASI

10:30/12:00 "Elikadura kontzientea". Portalea.

EGUENA 9

URTEKO BATZARRA

11:00 Ikasten elkartearen urteko batzarra. Armeria Eskola.

ODOL-EMATEAK

16:30/20:30 Odola ematera joateko saioa. Untzaga jubilatutako etxea.

ANTZERKIA

19:00 "Sonrisas y risas" (La Novena) lanaren estreinaldia. Coliseo.



KOKO-DANTZAK

19:30 Koko-dantzak ikasteko saio irekia. Errebal Plaza.

ERAKUSKETAK

Otsailaren 19ra arte:

- "ERREFUXIATU SAHARAUJEN KANPAMENDUAKI" Jose Luis Irigienaren argazkiak. (Topaleku).
- "ARTEA ETA ARKITEKTURA EIBARREN II" Manuel Zabalaren maketak. (Armagintzaren Museoa).
- "BEARDAN BEZELA (GEHIENETAN)" La Taller grabatu-eskola (Portalea).

Martxoaren 19ra arte:

- "FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN." (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

3an (BARIXAKUA) ANTZERKIA
20:30 / Ermua Antzokia "Lehendakari gaia" (Txalo Produzkoak)
4an (ZAPATUA) KONTZERTUA
20:00 / Lobiano Kulturegunea Orihen (disko berriaren aurkezpena)

DEBA

3an (BARIXAKUA) PAILAZOAK
18:00 / Itziarko frontoia Pirritx, Porrotx eta Marimotots
4an (ZAPATUA) IRTEERA GIDATUA
11:00 / Lobiano Kulturegunea "Metro karratu bat Deba ibaiaren alde", Ekin Berdea! egitasmoaren barruan

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **4an:** 19:45, 22:30
- **5ean:** 20:00
- **6an:** 20:30

"Al descubierto"
DRAMA



2022/AEB/129'
Zuzendaria: Maria Schraeder
Aktoreak: Zoe Kazan, Patricia Clarkson, Carey Mulligan
Kazetaritza / Sexu abusuak

2 ARETOA

- **4an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **5ean:** 17:00, 20:00
- **6an:** 20:30

"Una herencia de muerte"
KOMEDIA



2022/Erresuma Batua/91'
Zuzendaria: Dean Craig
Aktoreak: Toni Collette, Anna Faris, Kathleen Turner
Familia barruko gorabeherak

ANTZOKIA

- **4an:** 17:00, 19:45 (1), 22:30
- **5ean:** 17:00 (1 Aret.), 20:00
- **6an:** 20:30

"La ballena"
DRAMA



2022/AEB/117'
Zuzendaria: Darren Aronofsky
Aktoreak: Brendan Fraser, Sadie Sink, Hong Chau
Familia barruko arazoak

ANTZOKIA

- **4an:** 17:00
- **5ean:** 17:00

"Yuku & Himalaiako lorea"
ANIMAZIOA



2022/Belgika/62'
Zuzendaria: Arnaud Demuynck
Fantastikoa / Komedia / Abenturak / Arratoiak eta katua



FUNEUSKADI
Single Auzoa

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO EIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Sidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xivillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ernuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

943 20 09 18

Urkizu, 11 - 48940
publizitatea@betakitto.eus

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **XABAT**, 9 urte bete dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Etxahunen partez.



Zorionak, **OIHANA**, domekan 9 urte egingo dozuz-eta. Jarraitu holan, txapeldun! Etxeko guztion partez.



Zorionak, **NERE!** Oso ondo pasa domekan, 6 urte! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NAHIA**, astelehenian 5 urte bete zenuaz-eta. Patxo erraldi bat etxequon partez.



Zorionak, **ADRIANA**, astelehenian 2 urte beteko dozuz-eta. Segi gure egunak alaitzen. Pillua maite zaittugu.



Zorionak, **NORA**, astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **OIER**, urtarrillaren 27xan 5 urte egin zenuaz-eta. Famelixaren eta, batez be, Jule zure arrebaren partez.



MARITXU Etxaburu. Zorionak zure 101. urtebetetzian. Etxeko danon partez.

www.aldatze.eus

aldatze  **ALDATZE DENOK GARA**

MATRIKULA - IZEN EMATEA -
otsailaren 13tik 24ra



Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Urkin. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Bista zabaleko 2 balkoi. Igoailua 0 kotatik. Garaje itxia aukeran eraikin berean. 690031734.

1.2. Errentan

- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Eibarren (bestela, Ermuan, Elgoibarren edo Sorluzen). 672860969.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667060292.

- Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Eibar inguruan. 688642761.
- Etxea hartuko nuke alokairuan. Gutxi gorabehera 600 euroren bueltan. 695752281.
- Pisua alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igoailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da baserrian lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. 643396874.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. 674457727.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631319476.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 602051567.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 679828576.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Baita gauzez ere. 641421135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 631489919. Tatiana.
- Mutila eskaintzen da elektrizista bezala, obretan jarduteko eta sukaldari moduan. 631640054.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632844780.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 632415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 602842219.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioa eginda. 631425686.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak eskolara eramateko eta LH klase partikularrak emateko. 688628235.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 632611432.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ikastaro sozio-sanitarioarekin. Esperientzia handia. 643398596.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 631612442.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Externa. 605402030.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da Eibarko denda batean. Jornada erdiz, arratsaldez, martitzenetik zapatara. Bidali curriculumak: eibartienda@gmail.com.
- Langilea behar da interna moduan pertsona bat zaintzeko. 688678934.
- Ileapaindegi batean esteticien edo/eta azakalatan eta pedikuran esperientzia duena behar dute. 686256940 (whatsapp).
- Gizon nagusia zaintzeko pertsona behar dugu, etxean biziko dena. Zertifikatua egotea derrigorrezkoa da. 620888320..
- Euskaraz dakien neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Mekanizazio Erdi mailako Heziketa Zikloa egiten diharduen

ikasleak irakasle partikularra behar du. 656702244. Rosi.

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- Gitarra klase partikularrak ematen dizkiet etxean bertan 5-12 urte bitarteko haurrei. 688695814.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Cama-nido edo kabi-oheta salgai. Egoera onean. 1,35eko oheta, komoda eta ispilua opari. 646293311.
- Organo elektronikoa salgai. Vals, tango, swing... erritmoak. 400 euro. 943752480.
- Patinete elektrikoa, kaskoa eta euritako sira salgai. Estrenatzeko. 695752700.
- LED lanpara, bonbilla eta aplikak saltzen ditut, denda itxi dudalako. 612223075.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Aurreko astean Unbeko mutilen aldageletan txandal praka beltza aurkitu zen (Pull & Bear markako XS talla). Unbeko sarrreran dago.

Axola zaizun informazioa
inoiz baino **gertuago**



eta kitto.eus


jarrai gaitzazu





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktoroa

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikian Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etegabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Okulzioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Asteleheneretik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziario-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com